

Itziar Yague eta Maria Ruizen kontzertuak Areatzako Emakumea eta Lurraldea zikloan

Areatza Udan izenpean, Areatzako garagarriko kultur programazinoak Emakumea eta Lurraldea zikloa hartzean dau. Ziklo honek, antzerkia eta kontzertuak eskaintzen ditu bainuetxe ondoko landan. Garagarriaren 10 eta 17an, eguenetan izango da: 20:00etan, antzerkia eta 22:00etan, kontzertua. Antzerkiari jagokonean, La Pez eta Ganso & Cia konpainiek eskainiko dabe obra bana. **12. orrialdea**



Lemoan jaiak saninazioetan

Garagarriaren 30ean hasi eta abuztuaren 3ra arte, bost egunetako jai egitaraua prestatu dabe Lemoan, saninazioak ospatuteko.

Txupina, aurten 35 urte bete dauzan Lemoatx Jubilatua eta Pentsiodunen alkarteko kide batek botako dau, hilaren 30ean, 19:00etan udaletxeko plazan. Musika eskaintza zabala dago programauta. Bunkker, Tatxers, Mariachi Imperial de Guanajuato, Zeinke, La Txama, Alarma Morea eta Süneg kontzertuak eskainiko dabez eta Mugi Panderoa eta Altza Porru erromeria taldeek be animauko dabez jaietako gauak. Jaietako bezperan Andoni Ollokiegi egongo da txosnagunean. DJak eta kalejirak be ez dira faltauko.

Gastronomiari jagokonean be egongo da zer dastatu Lemoan: ta-loak, paella, gisadu eta tortilla lehiaketak eta euskal labela daukan o-lasko pintxo dastaketea be egongo dira-ta.

Jaiei amaierea emoteko, urtero lez, Lemoako jaietako ikur dan Garsu erreko dabe. **5. orrialdea**



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

BEGITUREN Udako Argazki Lehiaketeta martxan dago

Urtero lege, urri lehenengoaren 25era arte, martxan da Udako Argazki Lehiaketeta, irakurleek euren oporretako momentu berezienak beste irakurleakaz konpartidu dagiezan. Irabazleak persona birentzako aste-goien bat landetxean izango dau saritzat. **7. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

2024an, 20.000 ekitaldi inguru erregistrau ziran Kulturklik atarian

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako kultur programazinoa biltzean dauan Kulturklik atarian, egunean, batez beste, 55 kultur saio izan ziran EAEko udal-errietan. Arratian, kultur jarduera gehienak ez dira hor jasoten, baina Igorre eta Lemoako kasuetan lagin adierazgarria da. **8. eta 9. orrialdeak**

AREATZA

Mexiko eta Tajikistango folklore taldeak egongo dira Areatzan

Garagarriaren 19an izango da Areatzako Folklore Bizian jaialdia. Mexiko eta Tajikistango taldeez gainera, Galdakaoko Andra Mari jantza taldeak be eskainiko dau emonaldia. Emonaldia frontoian izango da, baina bertara joateko plazan batuko dira danak eta ka-lejiran joango dira bertara.

Folklore Bizian jaialdia, Gal-dakaoko Andra Mari Eusko Dan-tzari Taldeak udalakaz batera antolatuten dau urtero hainbat herrian; Arratian, Areatzan. Mun-du osoko jantza taldeak egoten dira euren herrialdeetako folklo-reara erakusten. **6. orrialdea**

GANGUREN psikoteknikoa

- Gida Baimenak
- Animalia Arriskutsuak
- Nautika
- Arma lizentziak
- Segurtasun pribatua
- Garabiak

ORDUTEGIA
Asteazken eta ostegunetan
09:00 - 13:00
Astelehen, astearte eta ostegunetan
16:00 - 20:00

www.psicotecnicoganguren.eus - 611 72 88 55
info@psicotecnicoganguren.eus

EKIN

LAN PUBLIKOAK
UR ETA SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK

94 631 72 57
ekin@ekinsl.eus

Igorre (Bizkaia)

Literatura txokoa

MANERAS DE AMAR (II)

Baina hau guztiau antzerki hutsa da, ze ume honeen bihotz taupadak neurtuta, kanadiarra konturatu zan, barrutik, besteak legez, txarto pasetan ebela amak alde egitean. Esperimentuen ondorioz, hiru atxikimentu mota dagozala ziurtatu eben: segurua, ansiedade handikoa eta saihesle edo ebitatiboa. Honeei gehitu behar jakie "desantolatua", azkenengoen zelanbaisteko nahasketa bat. Atxikimentu honeek zelan erlazonauko garan besteakaz marketan dabe betirako.


Liburuak, lagunak hobeto ulertzen eta bikotea aukeratzen lagundu ahal deusku. Ez da gauza makala. Gure amagaz (edo zaintzaileakaz) geunkan lotura mota, gura barik, errepetiduten saiatzen

gara gure besteakazko erlazi-noetan. Berbarako, ansiedade handikoa bazara saihesleengana sentiduten zara erakartuta. Zergaitik? Seguruenik, zure zaintzailea saiheslea zalako. Eta persona seguruak aspergarriak iruditzen jatzuz. Baina, ansiedade handiko persona bateri ez jako saihesle bat komenidu. Honegaz ez dot gura esan inkompatibleak diranik. Baina alkarregaz ondo konpontzeko esfortzu gehigarri bat egin beharko dabe. Lehenengoz, oso inportantea da jakinaren gainean izatea. Horrek guztiz aldatzen dauz gauzak. Saiheslea bazara eta jakitun bazara horretaz, konzientea izango zara intimdadea lararin joaten bada apur bat bildurtuta sentiduko zarala, eta saiatuko

zara hori konpontzen edo esango deutzazu beste personeari, esate baterako: "benetan gustukoa zaitut, baina hobeto sentiduko naz gauzak apur bat moteltzen badoguz, gauzak ondo egin gura dodaz" edo antzeko zeozer.

Beste gauza bat kontuan hartu beharrekoa: jente seguruak harreman sendoak izaten dabez eta gatxa da neska-mutil zahar geratzea. Horrek esan gura dau neska-mutil zahar (bikote bakoak esan gura dot) gehienak izango dirala saihesle edota ansiedade handikoak. Eurakaz gauzak ondo atera daitezana, lan gehiago egin beharko dozu eta aztertu ondo zelangoa zaran zeu eta zelangoa dan zure bikotegaia.

Beraz, libre bazagoz, eta biko-



Amir Levine eta Rachel Heller
Maneras de amar
Books4pocket, 2016
288 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK	Larrialdiak Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00 SOS DEIAK 112 Guardiako farmaziak 09:00etatik 22:00etara Bagilaren 30etik garagarilaren 6ra Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1 Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820 22:00etatik 09:00etara Iruarizaga. Amorebieta-Etxano. (28-4) Garagarilaren 7tik 13ra Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1 Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937 22:00etatik 09:00etara Gutierrez. Amorebieta-Etxano. (5-11) Garagarilaren 14tik 20ra Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15 Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908 22:00etatik 09:00etara Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano. (12-18) Garagarilaren 21etik 27ra Traver. Bedia. J.A. Agirreren enparantza z/g Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305 22:00etatik 09:00etara Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano. (19-25) Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara Cometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri. Medikuak Arantzazu: 94 600 74 63 Artea: 94 673 92 11 Areatza: 94 631 71 52	Bedia: 94 631 34 13 Dima: 94 680 19 74 Igorre: 94 600 74 63 Lemoa: 94 631 31 16 Ubide: 945 45 03 61 Zeanuri: 94 673 91 49 Zeberio: 94 648 01 85 Udaletxeak Arantzazu: 94 631 56 89 Artea: 94 673 92 05 Areatza: 94 673 90 10 Bedia: 94 631 42 00 Dima: 94 631 57 25 Igorre: 94 631 53 84 Lemoa: 94 631 30 05 Ubide: 945 45 03 22 Zeanuri: 94 673 91 46 Zeberio: 94 648 10 79 AUM 94 631 17 17 / <i>mankomunitatea. arratia@bizkaia.org</i> Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea 94 631 55 25 / <i>gorbeialde@gorbeialdea.com</i> Areatzako Parketxea 94 673 92 79 IKE 94 673 62 51 / <i>kulturetxea@igorre.net</i> Euskotren 94 433 33 33 / <i>euskotren.eus</i> Areatzako Notariatza 94 673 92 26 Errota Fundazioa 688 854 543 / <i>info@erota.eus</i> Arratiako Musika Eskola 94 631 73 52 / <i>www.arratiakomusikaeskola.eus</i>	Bizkaibus 94 612 55 55 3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era. Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro. 3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino. Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro. Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro. 3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro. Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduro.	Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro. 3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Ubideitik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin. * 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira. Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro. 3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik) Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik. Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik. 3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20. *Basauriraino bakarrik. Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20. *Artearaino bakarrik.	Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40. Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00. Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40. Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean. Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean. Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10. Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20. La Union 94 427 11 11 Bilbo-Gasteiz Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioakoak 18:30ean. Gasteiz-Bilbo Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30etan. Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik. Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.
-------------------------	--	---	---	--	--

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizidade arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresea (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519



Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (LXXI).
Kale berbakunea sustatu guran

SARGORIA

- Hi Julian! Zer **dinok** ba!
- Hementxe **ñauk** ito beharrean!
- Bai! Hau **dok** beroa hau!
- Ezin **leitikok** egon be ez, hi!
- Tantakadea bekokitik jausten **dekok**, gizona!
- Eta zer egitea **gurok** ba, pausu bi emonda izerditan hasten **nok** bata!
- Errazoia **dekok** hi, holan **dok** gauzea.
- Joango **gozak** erre kara kangreju batzuk hartzean? Han behintzat freskorik egongo **gozak**!
- Ba **eztok** txarra hi!
- Ea ba **goaixak**!

ERETXIA

Bizitza

Bizitza. Bizitza erdigunean. Bizitza guztiak erdigunean. Mobimentu Feministek luzatu eban oihu ozena pandemia garaian, bizitza guztiak erdigunean ipini beharko geunkazala dana aldatzeko, edo hil.

Besarkatzen dot mezua, baina atsekabez ikusten dot ez genduala asko ikasi, bizitzak hobeto zaintzen ikasi ez dogu-ta. Oindino gehiago, kapitalismoak, patriarkaduak eta kolonialismoak maltzurkeriaz jarraitzen dabe bizitzaren aurka, bateraezinak diralako.

Bizitzak mehatxupean beti.

2025. urtea hasi zanetik Estadu espainolean 46 feminizidio egon dira jada, bikote edo bikote ohiak eragindakoak gehienetan. 2025eko lehenengo hiru hilebetan 47.865 genero indarkeriaren salaketa jaso dabez, igazko tarte berean baino % 4,28 gehiago. Kalera urteten garanean esateko: "nahikoa da! Nazkatuta gagoz eta bat ikutzen dabenean danok ikutzen gaitue!", bizitzak erdigunean ipinten gagoz.

2025eko lehenengo 5 hilebetetan Espainiarako bidean 1.865 persona hil dira. Sarrionandiak esaten eban moduan: "sorterria nekez uzten dau sustraiak han dituenak". Migratzeko hamaika errazoi dagoz, politikoak, ekonomikoak, klimatikoak... gehienak ipar globalak sortutakoak. Kolonialismo estraktibisteak euren herrialdeak ustiatu eta kutsatzen ditu, gerrak sortzean lagundu eta aldaketa klimatikoa handitu -hegoaldeak sufriduten dauana-. Urteten garanean kalera esateko: "inor ez da ilegala! Eskubide guztiak danontzat!, Arratia Harrera Herria!", bizitzak erdigunean ipinten gagoz.

Israel eta Palestinaren artekoa ez da gerrea, genozidioa baino. Eta ez zan hasi urri bigarrenaren 7an, 1948an baino, oin dala 78 urte. Kolonialismoa ez da barria, betidanik estadu batzuek beste batzuen lurak eta baliabideak lapurtzen ditue. Urteten garanean kalera esateko: "Palestina askatu", "Boikot Israel", "Gerrarik ez!" eta euskal



ARANTZA
IRURETAGOIENA
QUINTANILLA
Hezitzailea

armagintza ituan ipinten dogunean eta eragozpen fiskala egiten dogunean, bizitzak erdigunean ipinten gagoz, zelan ez.

Krisi ekosozial eta zibilizatorioan murgilduta gagoz. Lurragaz zilborhestea moztu dogunez ez gara konziente naturaren parte garala eta bere sintomak gureak dirala. Planeteak bederatzi muga ditu gaintu behar ez diranak bizigarritasuna bermatzeko. Sei jada aspaldian gaintituta, eta zazpigarren bat, ozeanoaren azidifikazioa, 2025eko bagileko Elhuyar aldizkariak baieztatu dau gaintitu dala. Transizino ekologikoaren izenean inoz egin ez diran sarraskiak egiten dabiz. Mendiak industrializau gura dabez. Transizino ekologikoa bai, baina kapitalismo berdea EZ! Hartzean dabizen ebatziak bizitzaren kontra doaz eta ez gaitue salbauko. Urteten bagara kalera aldarrikatzeko "mendietan ez!", "barritzagarriak bai baina ez holan" eta "Lurra defendiduko dogu", bizitzak erdigunean ipinten gagoz.

Euskal zerbitzu eta gestino publikoa neurri handiz pribatizauta daukaguz, bai Hezkuntza, bai Osakidetza. Arratian udan Osakidetzan murizketak ohikoak dira. Kalera urteten garanean danon eta danontzako zerbitzuak defendiduteko bizitzaren aldeko apustua egiten gagoz.

Isilik gura gaitue, Amazonen menpean, aurikularrak jantzita, norbere galaxian sare sozialetan galdu-ta. Baina, badagoz hamaika errazoi kalera urteteko, isilik ez egoteko. Kapitalismoa, patriarkadua eta kolonialismoaren eskutik bizitzaren kontra goaz, ez dau ardura atzean zenbat bizitza itxi, gitxi batzuek aurrera jarraitzeko.

Kalean batuko gara andren eskubideen alde: martiaren 8an, zemendiaren 25ean, feminizidio bat dagoanean. Kalean alkatuko gara migranteen eskubideak aldarrikatzeko, zerbitzu publikoen aldeko manifestazinoetan, gerren kontrako ekitaldietan, Lurraren defentsan eta megaproiektuen kontrako ekintzetan.

Kalera, kalera!



LUMATUTEN



ALASNE ARTETXE

Hobetzen, fintzen, estutzen... norentzat? Zertarako?

Estetikearen izenean mol-deatu dogu, osasunaren izenean neurtu, errendimentuaren izenean exijidu. Eta egunen joan-etorrian, nekez oharitu gara zer bihurtu garan: geure gorputzen zaindaria zorroztz, epaile zital, morroi, eta batzuetan, "torturatzaille" isil.

Ez dogu gorputza entzuten, ikuskizun bihurtu dogu-ta; *performance* etenbakoa, besteek ikusteko, epaitzeko, miresteko edo gitxiesteko/baliobakotzeko.

Zenbat ordu pasetan doguz zutunik espiluaren aurrean, norberaren irudia laztandu barik, mindu barik? Modan dagozan zenbat "elikagai" erosten doguz ez gosea asetzeko, gustetan jakun *influencer* horren berba miresgarriek dinoskuetako? Zenbat pausu emoten doguz

egunean, ez leku batera hel-tzeako, baizik eta aplikazio batek zoriondu gaizan?

Oinez goaz, eta sorbaldak tentetzen/arteztan doguz, ar-nasea eutsi... nonor hurreratzen jakunean... Gure inperfekzioak ezkutatzeko talentu honek izer-dia min bihurtzen dau. Zein gatxa dan norbere buruagaz bakean egotea beti hobetzen, fintzen, estutzen... gabizanean.


Holan, askatasuna galtzean dogu milimetroz milimetro, giharrez gihar. Batzuentzat ba-dirudi askatasuna gura daben gorputza izatea dala, baina ez da holan, benetako askatasuna norberaren gorputz horretan lasai bizitea da. Norberari leial izatea, ez moda bateri, ez al-goritmo bateri, ez isilpeko irain bateri.

Behingoz geure buruari gal-detu beharko geunskio: noren begiradapean bizi gara? Nork agindu deusku geure hezurrek hartu behar daben forma? Neurtu beharreko emaitza ete da gorputza?

Gorputza hizkuntza bat da, gutako bakotxak baino entzun behar ez dauana. Ez espiluak, ez pantaileak, ez jentearen eretxiak.

Azken hori lortzean dogu-nean gorputza ez da izango arduratzeko errazoa, ezta lotsa-ren iturri be, bizi izandakoaren lekukoa baino. Eta orduan bakea sentituko dogu, bakea geure buruagaz.

ZERTZEAN



BEGI TXINDORRA

Izena gogoratu gura ez dodan Arratiako txoko baten badago lora moltso ikusgarri hau. Hortentsiak dira. Egia esan, aurtongo euriteei esker, gehienetan oharkabean pasetan diran honeek loraoneek benetan ikusgarri dagoz bazter guztietan. Berez, lora honek Japonian dauka jatorria eta holandarrek Europara ekarri eben. Oin, Europako Atlantikoko lora nagusi daukagu, Britainiatik Galiziaraino, hezetasuna eta klima epela atsegin dauz-ta. Pista bat jakiteko non dagozan, Zea-nuriko errota baten aurrean.

Alvaro Rabelli

Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06

Pozueta poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa
hagin klinika

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Itxaropen Zerbaita: 900
R.P.S. 31/06

LEMOA

Zeinke, Süne eta Alarma Morea jaietan

Aurten 35 urte bete dituan Lemoatx Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkarteak emongo deutse hasikerea jaiei. Eguaztenean, hilak 30, 19:00etan izango da eta domeka iluntzera arte iraungo dau jaiak.



Erredakzinoa

Txupina bota ostean, kalejiran joango dira Elizondora Mozorro Lehiaketan parte hartu gura dabena, erraldoiak eta gaiteroak. Hortik aurrera, ondo pasetako jarduera ugarik osotuten dabe jaietako programea: kontzertuak, erromeriak, gastronomia lehiaketak, playbacka, eta artisautza azokea, besteak beste.

Kontzertuei jagokienean, Bunkker, Tatxers, Mariachi Imperial de Guanajuato, Zeinke, La Txama, Alarma Morea eta Süne taldeek joko dabe. Mugi Panderoa eta Altxa Porru erromeria taldeek be animauko dabez jaietako gauak.

Jaietako bezperan, herri afaria eta Andoni Ollokiegiren kontzertua egongo dira txosnagunean.

Uztailak 30, eguaztena
18:30ean, jaietako kartelen erakusketea udaletxeko plazan. 19:00etan, jai hasikerako txupina udaletxeko plazan. Lemoatx Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkarteak bere 35. urteurrena dala-ta, emongo deutse hasikerea jaiei. Mozorro lehiaketan parte hartuko dabena guztiak kalejiran joango dira erraldoi eta gaiteroakaz Elizondoraino, eta bertan izango da sari banaketea.

21:00etan, kuadrillen afaria Kulturguneko plazan (euria bada, kiroldegian). Afaria 18 urtetik beherakoentzat izango da. Kuadrilla bakotxeko guraso batek afarian zehar zaintza egiteko ardurea hartu beharko dau txartelak jasoterakoan.

22:00etan, Ameztu Antzerkiaren *DJ Kaktus, bihurriak gara* ikuskitzuna Kulturguneko plazan (euria bada, kiroldegian).

23:00etan, kontzertuak eta erromeria txosnagunean: Bunkker, Tatxers eta Mugi Panderoa.

Uztailak 31, eguena
11:30ean, XXVII. Artisautza Azokea Atxetako plazan. 12:00etan, mezea San Inazio balseleizan. Meza ostean, Durundi Barri Dantza Taldearen ekitaldia. 12:00etatik 13:30era, baserriar jantzita doazenei taloa eskuratze-ko txartel banaketea.

17:30ean, Bola Txapelketea 18 urtetik beherakoentzat San Inazio plazan. 18:00etan, Bola Txapelketea 18 urtetik gorakoentzat San Inazio plazan. 19:00etan, Mariachi Imperial de Guanajuato taldeagaz kalejirela San Inazio plazatik Elizondora. Ondoren, kontzertua txosnagunean: Mariachi Imperial de Guanajuato.

Abuztuak 1, barikua
12:00etan, Bote Luzea erakustaldia Lemoako Esku Pilota Taldearen eskutik, Elizondon. 18:00etan, *Zirkoteka*, Zirkozaurrerren umeentzako zirku tailerrak, Kulturguneko plazan. 19:30ean, Sama Siku fanfarrea Elizondotik. 22:00etan, Playback Lehiaketea txosnagunean. 23:30ean, kontzertuak eta erromeria txosnagunean: Zeinke, La Txama eta Altxa Porru.

Abuztuak 2, zapatua
11:00etan, Haur Parkea eskolako patioan: ur-puzgarriak, ponpa txokoa, joko erraldoiak, ludotekoa, *bubble balls* eta bits jaia. 13:30etik 14:00etara, Paella, Gisadu eta Tortilla Lehiaketetako aurkezpena eskolako patioan. Ostean, herri bazkaria eskolako patioan. Jatekoa norberak eroan, Jai Batzordeak mahaiak eta aulkiak ipiniko ditu eskuragarri. 17:00etan, Jubilatuta Elkarteak antolatuta, Mus eta Briska Txapelketak Jubiladuen tabernan. 17:30ean, Igel Txapelketea 18 urtetik beherakoentzat eskolako patioan. 18:00etan, Igel Txapelketea 18 urtetik gorakoentzat eskolako patioan. 19:30ean, Rally Umoristikoa Elkartrukeko gazteek antolatuta Arlonagusia Plazatik. 22:30ean, kontzertuak txosnagunean: Alarma Morea, Süne eta DJ Kuku eta Kene. Goizaldean kopaua txosnagunean. 02:30ean eta 05:00etan, etxera bueltetako autobusa Correos-etik.

Abuztuak 3, domekea
17:30ean, *Furgonologoa* Julen Axperen umorezko bakarriketea txosnagunean. 19:00etan, Eusko Labela daukan oilasko pintxo dastaketea txosnagunean. Pintxoak 1,5 eurotan salduko dira, eta jasoten dan dirua Makatzak Arratiako Ekologistak alkar-tearentzat izango da. Ondoren, Garsu erre. Egun osoan zehar Umeen Eguna barraketan.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO


Garagarrilean eta abuztuan zenbaki bana aterako dau BEGITUK paperean

Erredakzinoa

Garagarril eta abuztuan, hile bakotxean, zenbaki bakarra aterako dau BEGITUK paperean. Ha-ta guzti be, BEGITUK, Arratia, Ubide eta Zeberio informazinoa jarraituko dau emoten webgunean eta sare sozialetan.

Papereko aldizkariari jagokonean, 22 zenbaki ateraten dira urtean. Hau da, garagarrilean eta abuztuan hile bakotxean zenbaki bakarra kaleratzen da, hile hasikerakoa. Aurten be holan izango da, eta garagarilaren eta abuztuaren

hilaren erdiko zenbakirik ez da egongo. Hurrengo zenbakia be-raz, abuztuaren 1ekoa izango da eta urri lehenengoan, barriro be, hamabostero kaleratuko da BEGITU aldizkaria paperean.



IGORRE

Aska bat garagardao danon artean edateko erronkea San Kristobalen

Erredakzinoa

Garagarilaren 5ean, jaietarako motorrak berotuten hasteko, Egari Bako Egune izenpean erronka bat prestatu dabe Igorreko San Kristobal auzoan. Erronka hori danon artean, garagardaoz betetako aska bat hutsitutea izango da. Erronkeak iraun bitartean, parilladea egongo da, edana bakarrik ez, jana be ez daiten faltau.

Erronkearen idea, auzolanean iturria konponduten ebizala bururatu jakien auzoko batzuei. Iturria oin dala 10 urte konpondu eben, 2015ean, eta hamargarren urteurren hori, auzotarrei "biribila" iruditu jakie erronkea gauzateko.

Aska bete garagardao
Askan, 24 botilako 38 garagardao

kaja; hau da 912 botila, sartzean dira, baina kantidadea biribiltzearen "1.000 sartzea aztertuten gabiz" adierazo deusie BEGITURI antolakuntzatik. Askea, berez labaderoa zana, aurrez aurre egoan tabernako Jandrok eta Pantxikek, hozkailu lez erabilten eben edaria freskatuteko. Tabernea, 1990 aldera zarratu zan.

Eguerdiko 12:00etatik iluntzeko 20:00etara izango da erronkea. Parte hartzeako auzoko lagun bategaz ipini behar da hartu-emonetan eta 25 euro emon, gastuak ordainduten lagunduteko.

Lehen aldia da holango erronkea egiten dana. "Jana, edana, jokoak, musikea eta giro ederra ez da faltauko. Eta baten batek egarriagaz segiduten badau, ez ahaztu San Kristobaleko iturriak ura be badaukala".



DIMA

Hamar urte barru eskolara itzultzeko promes eginda agurtu dira Dimako eskolako seigarren mailakoak

Eurentzat berezia dan zeozer bidoi baten sartuta eta amaitu barri dan ikasturtean bosgarren mailan izandakoei lekukoa emonda, oin urte biko gelan seigarrenean dagozanean, eskolara bueltauko dirala aginduta esan eutsien agur LH 6. mailakoek Dimako eskoleari.



Erredakzinoa

Lurpean, hamar bidoi geratu ziran; bata, aurten joango diran umeen lekukotasunak gordeten ditua-na eta beste bederatziak hutsik. Hamaikagarren bidioia, kanpoan geratu zan, bosgarren mailakoen eskuetan, datorren ikasturtean euren be bete dagien. Urtean-urtean beteten joango da eta hamarrak betetakoan, urtean-urtean joango dira euren bidioia zabaltzen eta hutsitutuen orduko seigarren mailakoei lekua egiteko.

Denboraren Kapsula izeneko proiektua ikasturtean zehar landu izan dabe Dimako eskolako seigarren mailakoek, gurasoen alkar-tea, Zornotzako Lanbide Heziketa zentroagaz eta auzolanean ibili diran hainbat lagunegaz.

Denboraren Kapsula

Umeen ateraldi batetik urten zan idea. "Umeakaz berbaz nengo-la, ez deusue emongo penarik eskolea itxea? preguntau neutsan semeari eta berak erantzun eus-tan ezetz, denporearen makina bat inbentauro ebela eta seigar-ren mailara itzuliko zirala. Hortik sortu zan idea hau" azaldu deu-tso BEGITURI guraso batek.

Ideak eskola eta Udalaren ba-besa izan ebala dinoe gurasoek. Eskoleak ikasturtean landu eban proiektua eta berau gauzatzeko

Zornotzako Lanbide Heziketako zentroagaz ipini ziran harreman-etan. Hango ikasleek egin dabe Denboraren Kapsularen burdi-nezko estalkia.

Ekitaldia

Bagilaren 20an, egin zan ikastur-te amaierako ekitaldia, Denbora-ren Kapsula inaugurauz. Bertan, udal ordezkariak, guraso alkar-tekoak, irakasleak eta umeak egon ziran. Umeak eurak izan ziran protagonista, batez be, seigarren mailakoak, bertan hainbeste urte egonda, eskoleari agur esan eta institutura joango diralako dato-rran urtean.

Euren tutorea izandakoak eskerrak emon eutsan herriko hezkuntza komunidade osoari beregan ipinitako konfiantzea-

gaitik eta gogora ekarri ebazan kursoan zehar bizi izandakoak. "Haserrealdi batzuk euki doguz baina berba eginda danak kon-pondu doguz. Lantalde itzela izan gara eta pilo bat ikasi dogu" esan eutsen bere ikasle izandakoei.

Umeek, proiektuaren nondik-norakoak emon eta hamar urte barru bertan alkartuko zirala agindu eben. "Hamar urte barru, aurten seigarren mailan egon garanok, hementxe bertan alkar-tuko gara gure kutxa zabaldu eta alkarregaz egoteko. Beraz, behin kutxa sartuta, hamar urte itxaron behar dira zabalduteko" adierazo eban eurretako batek.

Kapsulan euren bidioia sartu, bosgarren mailakoei beste bat emon, kapsulea zarratu eta ber-tso batez amaitu zan ekitaldia.



IGORRE

Akerbeltz erromeria taldea egongo da Igorreko San Kristobal auzoan

Erredakzinoa

San Kristobal egunean, garagarri-laren 10ean, mezea, barauskarria eta trikitilariak egongo dira baina hurrengo zapatuan, egun osoa hartuko dau jaiak. Egitarauan, mendi ibilaldia, jenteak hain gus-tuko dauan Goitibehera Lehiake-ta ikusgarria, Igel Txapelketea, Paella eta Tortilla Lehiaketak, kale antzerkia eta euskal jantza dagoz; gauean, erromeria Akerbeltz tal-deagaz eta ostean DJ Jonkas-ek ipiniko dau musikea berandura arte.

Garagarriak 10, eguna

12:00etan, mezea.

Ostean, barauskarria eta herriko trikitilariak.

Garagarriak 12, zapatua

10:00etan, Aramotz oinez ezetu. 12:00etan, Paella Lehiaketarako izen-emotea. 13:00etan, Igel Txapelketea. 14:30ean, paellen aurkezpena. 16:00etan, Goitibera Lehiaketea Ubegitik plazara. 18:00etan, Tortilla Lehiaketarako izen-emotea. Gero, kale antzerkia. 20:30ean, tortillen aurkezpena. 22:00etan, Arantzarte jantza tal-dearen emonaldia. 23:30ean, erromeria Akerbeltz taldeagaz eta ostean DJ Jonkas.



ZEBERIO

Mandoiako parke eolikoaren kontrako 800 alegazino aurkeztu ditue

Erredakzinoa

Mandoian Eolikorik Ez platafor-meak, 800 alegazino aurkeztu ditu Mandoia-Upoko gailurrerian Feroskana Parke Eolikoa egiteko proiektuaren kontra. Proiektuak, 27 megawatteko 200 metroko sei aerosorgailu aurreikusten ditu Ze-berio eta Bediako lurretan. Kalteak, batez be, Arantzazu, Bedia, Igorre, Usansolo eta Zeberion igarriko litzatekez eta herri horreetan jaso ditu plataformeak alegazinoak.

Alegazinoetan Eusko Jaurlarit-zeari eskatzen deusie Inguru-

men-inpaktuaren adierazpena eta baimen administratiboa ez emoteko, espezie babestuak da-goan ingurumenean (miru zuria, tartean) eta jentearen aisialdirako dan espazio baten egingo leuken eraginagaitik. Tramitazioan, irre-gularidadeak egon dirala be jaki-narazoten dabe plataformakoek.

Norbanakoez gainera, hainbat taldek aurkeztu ditue alegazinoak. Arantzazu, Lemoa, Usansolo eta Zeberio mendi taldeak, Maka-tzak Arratiako Ekologistak taldea, Arratia Zutunik eta Kiñu Gaztetxea dira horreetako batzuk.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

BEGITUREN Udako Argazki Lehiaketea abian

Erredakzinoa

Urtero lez, martxan da BEGITUREN Argazki Lehiaketea, udan bizi izandakoak beste irakurleakaz konpartiduteko. Irabazleak aste-goien bat landetxe baten izango dau saritzat.

Argazki Lehiaketearen oinarriak:

- 1.- Gaia: Argazkiak 2025eko opo- rretan egindakoak izango dira.
- 2.- Lanen ezaugarriak: Aurkezten diran argazkiak, non, nok eta noz atera diran esan behar da. Gehie- nez 3 argazki bialdu ahal izango dira personako.
- 3.- Nora bialdu: Argazkiak *begi- tu@begitu.eus* helbidera bialdu behar dira.

- 4.- Aurkezteko epea: 2025eko garagarriaren 1etik urri lehenen- goaren 25era arte aurkeztu dai- tekez argazkiok. Abuztua eta urri lehenengoko aldizkariaren zenba- kietan argitaratuko dira batzuk.
- 5.- Epaimahaia: BEGITUKO erre- dakzino taldeak osotuko dau.
- 6.- Epaia: Epaimahaia urri lehenen- goaren bigarren hamabostaldian batuko da epaia emoteko eta urri bigarrenean emongo da jakitera.
- 7.- Lehenengo saria: Persona birentzako astegoi- en bat Eus- kal Herriko landetxe baten. Sari gehiago egon daitekez, epaima- haia egoki jo ezkeru.
- 8.- Oharra: Lehiaketa honetan parte hartzean dabenek honeek oinarriok onartuten dabezala esan gura dau.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Jai ugari auzoetan oingo hilean

Santomasak, sankristobalak, santamañeak, madalenak, santiagoak, santanak eta saninazioak ospatuko ditue izenpe horreetako ermiten inguruetan batzean diran Arratia, Ubide eta Zeberioko auzoetan.

Erredakzinoa

Auzo bakotxak bere ezaugarriak dituan arren, jaietan bizilagunek jana eta musikea edo jantzak konpartiduko dabez, besteak bes- te, ospakizunetan.

Hileko lehenengo jaiak Area- tzako Ospitalostekoak dira. Han santomasak ospatuko ditue gara- garriaren 3an, 12:00etan mezea- gaz eta 20:00etan, parrilladeagaz.

Hurrengoak sankristobalak dira. San Kristobal eguna hilaren 10ean da. Igorreko San Kristobal auzoan mezea, barauskarria eta trikiki- tilariakaz ospatuko dabe eguna baina eguna danez, zapatuan egun osoko jai prestatu dabe: 10:00etan, Aramotzetik mendi ibilaldiagaz hasita, gauera arte. Auzoan mitikoa dan goitibehera lehiaketea ez da faltauko eta Aker- beltz erromeria taldeagaz eta DJ Jonkas-en musikeagaz amaituko da jaiak.

Santa Marina edo Santamañe eguna 18an da eta Arteako San- tamañen eta Dimako Bargondian ospatuko dabez auzoko jaiak. Artean, hilaren 20an, domekan ospatuko dabe jaiak, urtero legez, mezea, barauskarria eta Paella Txapelketeagaz. Arrastian, Mus eta Briska Txapelketak jokatuko dira.

Maria Madalenaren eguna, hila- ren 22an da eta Dimako Lamin- daon eta Ubiden, ospatuten da jaiak. Ubiden egun osoko jai pre- statu dabe eta gauean erromeria egongo da.

Zeanuriko Ipiñaburun, Santiago eta Santa Ana egunak ospatuten ditue hilaren 25 eta 26an hurren- goz hurrengo. Lau eguneko jai egitaraua prestatu dabe: aurreko zapatuan, hilak 19, botako dabe txupina eta hurrengo 24, 25 eta



26an izango dira jaiak. Artean eta Diman be ospatuko dabez santiagoak izen bereko ermiten inguruan. Artean, mezea Santiago ermitan eta ostein barauskarria egongo da eta Marmitako Txapel- ketea haren inguruan.

Eta hileari amaiera emoteko, San Inazio jaiak dagoz. San Inazio egunean, Bizkaia osoan dago Gor- beiara igoteko ohiturea eta Areatza- tik autobusak urtengo dira jentea Pagomakurreraino hurreratuteko.

Ipiñaburuko Santiago jaiak Garagarriak 19, zapatua

12:00etan, jaien hasikerako txupina. 14:00etan, auzo bazkaria, bazka- lostean animazinoa. 19:00etan, Bola Txapelketea, Kofradien Bola Txapelketarako puntuagarria. 20:00etan, txokolatea.

Garagarriak 24, eguna

19:00etan, auzotarren arteko Tor- tilla Txapelketea. Ostein, partaideen arteko afaria.

Garagarriak 25, barikua

12:00etan, mezea eta ostein ba-

rauskarria herriko txistulariakaz. 17:00etan, Mus eta Briska Txa- pelketak, umeentzako jolasak eta Montse artisauaren eskutik ardi-ulea pintetea. 18:00etan, Walas magoaren Ger- tutik ikusteko magia ikuskizuna. 19:30ean, artzai txakurren erakustaldia. 21:00etan, trikitilari- ek girotuta, urdaia danontzat; bitartean erri- fearen zozketea egingo da.

Garagarriak 26, zapatua

12:00etan, Arimen mezea, on- doren, barauskarria.

Ubideko Madalena jaiak Garagarriak 22, martitzena

12:00etan, umeentzako jokoak. 14:30ean, Tortilla Txapelketako tortillen aurkezpena. 15:00etan, bazkaria bolalekuan (bakotxak berea). 16:30ean, bingo musikatua. 18:00etan, Makillaje Lehiaketea. 18:30ean, kontzertua: Pancho Balbuena. 20:00etan, sardinak eta txokolatea. 21:00etan, erromeria Eingo tal- deagaz.

Onetiaue Herri Lehiaketan

Gure
irastetxeak
Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Uaur Hezwuntza
Lehen Hezwuntza
Dorrigorrezko Digarren Hezwuntza
Datzilergoan
Hezwuntza Zinloan
2 urtatu 13ra

SARETZEN: KULTUREA

EAEko kultur sarea: bizia, baina asimetrikoa

2024an, 20.000 ekitaldi inguru erregistrau ziran Kulturklik atarian, Eusko Jaurlaritzeak bultzatutako eta lurraldeko kultur programazinoa biltzean dauan plataforman. Beste era batera esanda: egunean, batez beste, 55 kultur saio izan ziran EAEko udalerrietan. Ha-ta guzti be, uzta emankor horren atzean errealidade konplejuago bat dago: kultura ez da bardin ailegetan txoko guztietara. Ekitaldi ugari izan arren, lurralde banaketak agirian ixten ditu sarbidean, ugaritasunean eta hurrentasunean eragina daukien egiturazko desbardintasunak.

Tokikom/Hiruka

Eskuragarri dagozan datuek programazino bizia islatzen dabe. Kontzertu, antzezlan, jaialdi, erakusketa, berbaldi eta bestelakoen artean, EAEk kultur jarduera etenbakoa dauka urtean zehar. Musikea da nagusi: kontzertuek programazino osoaren % 31,8 hartu eben 2024an (6.342 ekitaldi); ondoren datoz antzerkia (% 21,3) eta ikus-entzunezko proiektinoak (% 11,8). Gaintzekoa beste diziplina batzuek osotuten dabe; jantza ikuski-zunek eta erakusketek, barbarako.

Ekitaldi gehienak udalerrri gitxi batzuetan pilatzen dira, jentetsuetan pilatu be: hiru hiriburuak Bilbok, Donostiak eta Gasteizek; ekitaldi guztien % 48 hartu eben, eta urtean 3.000tik gora antolatu ebezan, batez beste. Uriburuak kenduta, 36 udalerrik bakarrik gaintitu ebezan 100 ekitaldi-urteko langa, eta horreen artean nabarmen-tzekoak dira Getxo (557), Tolosa (338), Barakaldo (335), Durango (334) eta Zarautz (277). Gainerako programazinoa 190 udalerritan banandu zan: 3.727 ekitaldi guztira, herri bakotzeko 19, batez beste. Arrakala horrek ez deutso populazinoari edo eskura dagoan azpiegitureari bakarrik erantzuten; instituzinoek programetako, baliabideak erakarteko eta kultur agenda egonkor bateri eusteko daukien gaitasunak be badauka eragina.

Gipuzkoa da densidade kultural

handiena izan dauan lurraldea: mila biztanleko 11,1 ekitaldi. Atzetik datoz Araba (9,7) eta Bizkaia (7,5); Bizkaia izan arren ekitaldi bolumen handiena (8.662). Aldea, beraz, ez dago kantidadeari lotuta bakarrik, biztanle kopurua be kontuan hartu behar da. Gipuzkoako zenbait eskualdetan, esaterako Tolosaldean, Urola Kostan, Debagoienan edo Donostialdean, mila biztanleko 10 ekitaldi baino gehiago egin ziran 2024an. Bizkaiko Arratia-Nerbioi eta Enkarterrin, aldiz, ez ziran 7ra heldu. Lurralde beraren barruan be, desbardintasunak nabarmenak izan dira.

Ekitaldi motari jagokonean, aurretik esandako moduan, musikea izan da nagusi: 6.342 kontzertu (% 31,8). 4.239 antzerki emonaldia egin ziran (% 21,3); ikus-entzunezko proiektinoek guztizkoaren % 11,8 hartu eben; berbaldiek eta jardunaldiek, % 11,5; erakusketek, % 6,9; eta jantza emonaldiek, % 4,3. Gainerako jarduerak; azokek, ikastaroek, tailerrek, lehiaketek... agendearen % 12,5 hartu eben.

Lau ekitalditik hiru eremu zarratuetan egin ziran, batez be Donostialdean, Arabako Lautadan eta Bilbo Handian; bertan, formatua % 76tik gorakoa izan da. Gainera, hamar ekitalditik zortzi egun bakar-rekoak izan ziran.

Euskerea gehiago hauspotu beharra?

Euskal kulturearen panoraman, euskerearen erabilerea funtsezko



elementua da. 2024an, ekitaldien erdiak inguru euskeraz edo ele bietan egin ziran. Batez besteko hori, ordea, aldatu egiten da lurraldetik lurraldera eta eskualdetik eskualdera. Gipuzkoan, zazpi eskualdeetatik seik gaintitu eben % 50eko langa, eta Debagoienan eta Urola Kostan programazinoaren erdia baino gehiago euskera hutsean izan zan. Bizkaian, aldiz, zazpitik bostek gaintitu eben muga hori, eta Durangaldea eta Markina-Ondarroa izan dira euskeraz gehien programau ebenak (% 58,4 eta % 61,5, hurrengoz hurrengo).

Arabian, barriz, eskualde bakar bat be ez da proporzino horreetara heldu; Aiaraldea hurreratu zan gehien (% 38,3 euskeraz, eta % 11,6 ele bietan). Alde horrek agirian ixten

dau euskereak aurrera egin dauala kultur arloan, baina lurraldearen hegoalde-mendebaldeko zenbait eremutan oindino be gabeziak dagozala. Kultura, zalantza barik, hizkuntza normalizazinoarako bide bat da, baina euskereak oindino be bidea urratu beharra dauka kultur sare osoan guztizko presentzia izateko.

Aparteko kapitulu bat merezi dabe urtero-urtero egin ohi diran jaialdiek. 2024an 677 jaialdi egin ziran EAEn, eta horreetatik erdiak musikalak izan ziran. Ondoren datoz zinema eta ikus-entzunezko jaialdiak (88), antzerkia (70) eta jantzea (49). Gainera, ia ehun jaialdi misto antolatu ziran; musikea eta jantzea alkatuta, esaterako; eta 64 hainbat diziplinatar bideratuak, literaturea, poesia,

argazkilaritza, bideo-jokoak eta modari begirakoak, esaterako.

Eskaintza askotarikoa bada be, kontzentrazino geografikoa ekitaldi guztiaz dagoan joerea errepetidu egiten da: 21 udalerrik hartu eben jaialdien % 70. Uriburuak dira barriz buru: Bilbok 134 jaialdi antolatu ebazan; Gasteizek, 86; eta Donostiak, 71; Kulturklik atarian erregistrautakoak. Parte-hartzaileen kopuruari jagokonez, aitagarrienak dira Zinemaldia, Jazzaldia eta BBK Live, 100.000 lagunetik gora izan ebezan, nahiz eta ez dan neurtzeko sistema ofizial bateraturik existiduten.

Jaialdien formatuari jagokonez, % 25 aire zabalean egin ziran (ekitaldi guztien % 16,5 bakarrik izaten da aire zabalean). Jantzea (% 48,5) eta musikea (% 30,1)



Udan ere euskaraz eroso

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

ARRATIAKO AEK

- Ikastaro trinkoak uztailean eta irailean 100 ordu (5 ordu egunean)
- Maila guztiak
- Azterketak prestatzeko (B1, B2, C1)

Udalek eta HABEK diruz lagunduta
Matrikula epea, ekainaren 2tik 27ra

Elxalde 10, behea. IGORRE
94 631 56 57 · 607 632 916 · arratia@aek.eus

Informazio gehiago



dira kanpoko espazioetan nagusi. Gainera, jaialdien % 68k egun bat baino gehiago iraun eben.

Antxinasunari jagokonez, jantza jaialdien erdiek 25 edizino baino gehiago ditue. Musika jaialdiak, barriz, gazteagoak dira: % 18,4k baino ez ditue 25 urte baino gehiago. Danen artean, Donostiako Musika Hamabostaldia da beteranoena, 85 edizino bete ebazan-ta igaz, Zinemaldiaren aurretik (72 edizino).

Ekipamentuen banaketea: go-rabeheratsua

Kultur ekitaldi horreek guztiek azpiegitura fisiko bat behar dabe. EAEko udalerriek 3.757 kultur ekipamentu ditue: 1.189 publikoak dira (liburutegiak, kultur etxeak, museoak, aretoak...) eta 2.568 kultur industriari lotutakoak (produktzio-eta, argitaletxeak, konpainiak, dendak, akademiak...).

Banaketea asimetrikoa da: Bizkaia ekipamentu horreen guztien % 49,1 dauka; Gipuzkoak, % 36,2; eta Arabak, % 14,7. Ez da kasualitatea, azpiegitura gehien dituen eremuak be programazino handiena daukienak izatea.

Eremu batzuentzako gaxa izaten da kulturarako sarbidea bermatzea: urtean 10 ekitaldi baino gitiago dituen udalerriak, euskera-zko programazinoak ia ez daukien eskualdeak, edo, besteak beste, zinema eta horren moduko jarduerarik eskaintzen ez daben tokoak. Kultur arrakala ez da beti agiriakoa, baina existidu egiten da. Kulturklik erabilgarria da argazki orokorra egiteko, baina muga bat dauka, borondatezkoa da eta ez ditu ekitaldi guztiak jasoten ezta urritetik be. Batez be, zirkuitu alternatiboek eta tokiko eragileek antolatutako jarduerak kanpoan gelditzen dira. Horrek iradokitzen dau errealitatea datuek erakusten dabena baino desorekatuagoa izan daitekeela.

Beraz, EAEko kultura sarea bizia, finkatua eta askotarikoa bada be, baditu argi-itzalak. Oinarri sendoa dago: ekitaldi andana, jaialdi sare zabala, azpiegitura sendoa eta euskerearen aldeko apustu gero eta handiagoa. Baina badira preminazko erronkak be: eskaintza lurraldez lurralde orekatzea, herri txikiei ikusgarritasuna emotea, jaialdien iraunkortasuna bermatzea eta eskualde guztietan euskerearen presentzia indartzea.

Aurreko lerroetan aitatutako datuak batuta, galdera argia da: Zer egin daiteke kultura persona guztiengana helduteko, baldintza bardenetan? Baliabideen zentralizazioa indartu ala udalerri txikien protagonismoa bultzatzen dauan desentralizazioa lehenetsi? Eredua edozein dala be, funtsezkoa da kultura eskubide bat dala ez ahaztutea, eta, beraz, herriar guztientzat bermatuta egon behar dau, non bizi diran kontuan hartu barik.

Igorre eta Lemoak pilatuten dabez eskualdeko kultur ekitaldien % 75etik gora


EITB eta Tokikom-ek alkarlanean garatutako Saretzen proiektuari esker Kulturklik.eus-en jasotako kultur ekitaldien datuak ikusi eta Arratia, Ubide eta Zeberioko kultur sarea aztertu dogu BEGITUN.

Erredakzioa

Kulturklik.eus-eko datuak ikusita, 2024an 144 kultur ekitaldi dagoz jasota Arratia, Ubide eta Zeberio. Ez da eskaintzearen argazki oso bat, ekintza ugari ez diralako Kulturklik-en erregistratu, baina herri herriko konparaketea egiteko aukerea emoten dabe datuok. Argi eta garbi, gurean programetan diran jardura kulturalen gehiengo antzerkiek hartzean dabe; 54 egin ziran guztira eta horrek eskaintzearen % 37,5a suposatuten dau. Bigarren postuan, musikeak be garrantzia handia dauka berton, 29 ekitaldi musikal egin ziran. Proiektzio audiobisual ugari be egon ziran, 21 dagoz jasota, eta erakusketak barriz, 11. Gainontze-koak azokak, jantzaldiak, jaietako egitarauak eta bestelakoak dira.

Kontzertu, antzerki, jaialdi, erakusketa, ipuin kontalari eta bestelako ikuskizunen eskaintza zabala da baina EAE mailan gertatuten dan moduan, herri-gune handienetan pilatuten da eskaintza gehiena. Holan, Igorre (% 47,2) eta Lemoa (% 29,2) artean egin ziran eskualdeko ekintza guztien %76,4a. Gainontzeko herriak, danak batera, ez dira laurden batera heltzean eta Ubiden ez zan inolako ekintzarik erregistratu, egin badira be.

Herri arteko desbardintasuna sano handia da eta batez be, herriar kopuruaren eta herriko instalazioen arabera dira programau diran jardura kulturalak. Igorrek berbarako, Arratia, Ubide eta Zeberioko kultur programazinoaren ia erdia hartzean dau, Kulturklik-en jasotako 68 jardueragaz. Erregistrautako jardura gehienak Udalak antolatutakoak dira, % 63,2a Igorreko Kultur Etxean egin ziran eta % 5,9 jaietako programazinoaren parte izan ziran. Holan, azpimarratutekoa da Kiñu Gazteak eskainitako kontzertu eta jaialdiak, zortzi jardura dagoz jasota eta honek, Igorreko kultur eskaintzearen % 11,7a suposatu eban pasau dan urtean. Bigarren postuan, eskualdeko bigarren herriar jentetsuena dago, Lemoa 42 jardueragaz. Gehienak, % 78,5a Kotxepin Kultur Etxean egin ziran eta Lemoako kasuan, azpimarra-



tutekoa da umeentzako jardura kulturalak izan eben pisua. Beren-beregi umeentzako programau-tako ipuin kontaketa eta antzerkiak, 10 guztira, eskaintza osoaren % 43a izan ziran.

Gainontzeko herrietan, kultur programazino bareagoa izan zan pasau dan urtean. Igorre eta Lemoaren ostean, Diman dagoz jasota ekintza gehien, 10 guztira. Zeanuri eta Areatzan barriz, 6 jardura dagoz jasota bakotxean. Zeberio 5, Artean 4, Arantzazun 2, Bedia 1 eta Ubiden 0 jardura jaso ziran oster; honek, jardueren % 24,6a bakarrik suposatu eben.

Halanda be, datuak ikusita, argi geratuten da biztanle kopurua eta jardura kulturalen kopurua ez doazela guztiz eskutik hartuta. Egin ziran jardueren batez bes-

tekoa, 1.000 biztanleko 5,88koa izan zan Arratia, Zeberio eta Ubiden. Eskaintza kultural txikia da hori, kontuan hartuta EAEko batz bestekoa 1.000 biztanleko 9,43 jardura egin zirala. Baina hemen be, desbardintasun handiak agiri ziran herri herri. Igorren berbarako, 1.000 biztanleko 15,8 jardura egin ziran eta Lemoan, 11,3. EAEko datuak gaitututen dabezan herri bakarrak izan ziran Igorre eta Lemoa baina gainontzeko herrietan, eskaintza apalagoa izan zan: Diman 1.000 biztanleko 6,6 jardura, Artean 5,3, Zeanuri eta Arantzazun 4,8, Areatzan 4,7, Zeberio 4,6, Bedia 9,9 eta Ubiden 0 dira erregistrautako jarduerak. Beti hartu behar da kontuan udal bakotxaren aurrekontua baina datu honek erakusten dabe, non egin dan herriarrentzako kul-


tur eskaintza zabal bat eskaintzeko ahalegina.

Euskerazko eskaintzea erdizka

Erabilereak behera egin dauan arren, Arratia, Ubide eta Zeberio euskerearen arnagune dira baina hori, ez da guztiz maminduten bertoko eskaintza kulturean. Izan be, Kulturklik-en jasotako jardura kulturalen erdia (% 51,34) baino ez zan euskeraz egin pasau dan urtean. Halanda be, kontuan hartu behar da jardura guztietan ez dagoala hizkuntzea erregistrauta batetik, eta Ubiden jarduerarik jasota ez egoteak eta Bedia erregistrauta dan jardura bakarra, azoka bat, gaztelaraz egin zala jasoteak bestetik, ehunekoa asko bajatuten dabela. Edozelan be, desbardintasun handiak dagoz euskal kultura zabalduteko egingako ahaleginean.

Holan, euskeraz egindako jardueren % 75eko lantzea gaitutu eben herri bakarrak Artea (% 100), Areatza (% 83,33) eta Lemoa (% 79,49) izan ziran, hurrengo hurrengo. Honeen atzetik baina % 50a gaitututa dagoz Zeanuri (% 60), Igorre (% 56,14) eta Arantzazu (% 50). Euskerazko jarduerak programautakoaren osoaren erdira heltzean ez diranak barriz, Bedia (% 44,44) eta Zeberio (% 40) bakarrik dira. Ubiden oster, ez dago erregistrautako jarduerarik beraz, ez dago daturik.

Jardueren hizkuntzea ehunekotan



PELOTEA

ETBko Plazandreak Txapelketako Lau t'erdikoa jokaturen dabil Amaia Aldai

Erredakzinoa

Bagilaren 23an hasi zan txapelketea eta garagarilaren 21era arte luzatuko da. Partidu guztiak Bilboko Esperantza pelotalekuan jokatu dira eta ETB1en ikusi ahal dira. Hamabi jokalarik hartuten dabe parte; tartean, Amaia Aldai pelotari dimoztarrek. Zortzi pelotarik binakakoa jokaturen dabe eta beste laurak lau t'erdikoa. Dimoztarra lau t'erdikoa dabil jokaturen.



Amaia Aldai.

FRONTENISA

Jaietan jokatu da I. Andrazkoen Frontenis Txapelketearen finala Artean

Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 7an, 17:30ean jokatu da Arteako frontoian Kafrangak talde feministeak eta Arteako Jai Batzordeak alkarlanean antolatutako I. Andrazkoen Frontenis Txapelketako finala. Han, Kattalin Burgoa eta Leire Etxebarria, Nerea Izagirre eta Irati Artarazegaz neurtuko dira.

Txapelketek lau helburu nagusi izan ditu, "bata, andrazkoen kirola indartutea eta ikusarazotea; bigarrena, andrazkoak espazio publiko okupetako bultzadea izatea; hirugarrena, Arratiako andron sarea sendotutea, eta azkena, ondo pasetea. Laurak bete dira" azaldu deusie antolakuntzatik BEGUTURI.

Saillkapen fasean, 17 bikotek, hau da 34 andrazkok, hartu dabe parte. Euretako 16 Arteakoak izan dira, eta gainontzeko gehienak, Arratiako beste herrietakoak.

Finalerdiak

Lehenengo fasea amaituta, finalerdiak bagilaren 26an jokatu

Binakakoan, Arrizabalaga-Bergara, Ibarrola-Gaminde, Zabaleta-Mendizabal eta Arraiza-Capellán bikoteak dabil lehian; lau t'erdikoan barriz, Aldai, Arrillaga, Etxegarai eta Erasun.

Bagilaren 23an Aldaik jokatu eban lehenengo partidua Miriam Arrillagaren kontra 18-16 irabaziz. Arrillaga Plazandreak saioko egungo txapeldunari nagusitu jakon Dimakoa. Hurrengo partidua garagarilaren 7an jokatu dau.

San Fermin Torneoa

Bagilaren 24an jokatu eben San Fermin Torneoko ligaxkako atzen partidua Amaia Aldaik eta Arrate Bergarak Laia Salsamendi eta Nora Mendizabalen kontra eta 22-15 galdu eben.

Partidu hori galdu arren finalaurrekoetara sailkatuta egoan Aldai eta bagilaren 27an jokatu eban Bergaragaz batera barriro be Laia Salsamendi eta Nora Mendizabalen kontra. Aldaik oso ondo jokatu arren 22-14 galdu eben eta inozko San Fermin Torneo luzeeneko finaletik kanpo gelditu dira.

ziran, Irati Garai arteaztarra eta Araitx Zapiko dimoztarra, Zea-nuriko Kattalin Burgoa eta Leire Etxebarriaren kontra. Burgoak eta Etxebarriak lortu eben finalerako pasea. Bigarren finalerdiko partiduan Raket Iruarizaga arantzazuarra eta Oihana Arrese igorreztarra, Nerea Izagirre busturiarrazagaz eta Irati Artaraz bediaztarragaz neurtu ziran. Izagirre eta Artaraz dira finala jokatu dabenak.

Carmen Madariaga Bustinzari omenaldia

Frontenis txapelketea, Carmen Madariaga Bustinza erraketista profesionala izandakoaren omenez da. Igorren jaioa 1927an, Artean bizi izan zan 1950. hamarkadatik 2004an hil zan arte. Carmen Madariaga 7 urtez erraketista profesionala izan zan, 1942tik 1949.

Kafrangak talde feministeak Udalar proposidu deutso erraketistearren omenezko oroigarri eta mural finkoa ipintea frontoian. Datorren ikasturtean, idea hori alkarregaz landuten hasteko asmoa daukie.

TXIRRINDULARITZEA

Jon Lopez Junior mailako ziklista bediaztarrak Granadan jokatu da Espainiako Txapelketea dauka helburu

Jon Lopez 17 urteko bediaztarra Durangaldeko Cafes Dromedario-Fotamet

taldeko Junior mailako txirrindularia da. Errepidean, ziklo-krosean eta mendian

lehiatzen da. Urtea ez eban ondo hasi, Valladoliden, urteko bigarren lasterketan,

hilebete biz jokoan kanpo itxi eban istripua izan eban-ta. Eskoi izterreko zuntzak

apurtu jakozan erori latz baten ostean. Ha-ta guzti be, denporaldiaren azken

txanpan osatuteko bidea hartu dau eta Abadiñon jokatu zan Euskadiko

Txapelketan laugarren postua lortu eban, sensazino onakaz. Oin, denporaldiko

helburu nagusira begira dago, oingo hilean Granadan jokatu da Espainiako

Txapelketan Euskal Selekzinoa ordezkatzean, hain zuzen be.

Erredakzinoa

Zein izan da zure ibilbidea txirrindularitzan?

Oin dala 5 urte hasi nintzan bizikletan. Lehenengo taldea Durangon izan zan Infantil mailan; ondoren Lezamako taldera egin neban saltu, urte bi emon ne-bazan han eta oin beste urte bi daroadaz Durangoko taldean.

Errepidean, ziklo-krosean eta mendian be lehiatzen zara, ezta?

Bai. Diziplina guztiak egiten doudaz, pista izan ezik: errepidea, ziklo-krosa eta mendia. Normalean errepidean emoten dot denpora gehiena. Ez dodaz lasterketa asko egiten baina denpora asko eta asko emoten dot errepideko bizikletearen gainean.

Udan, errepideko lasterketen denporaldia da. Parte hartzean zabiz lasterketetan?

Bai. Egia esan errepideko egutegia oso zabala da. Ziklo-krosa bukatzen danean, negu amaieran edo udabarrian hasten da eta urrietara arte izaten da. Momentuz ez dodaz lasterketa asko egin. Egindakoen artean Espainiako Kopa izan da, Gasteizen, eta herrietako beste hainbat lasterketat be hartu dot parte.

Zelan ibili zara lasterketa horreetan?

Ondo. Talde lana egin dot eta talde lanean oso ondo ibili naz, egia esan. Gasteizen taldekide batek hirugarren postua egin eban eta ezin hobeto ibili ginan. Ez daukagu lasterketa horren kejarik. Gure partaidetzea ezin hobea izan zan. Denporaldi honetan beste lasterketa batzuetan be parte hartzeako asmoa daukazu?

Bai. Oindino egutegia ez daukagu oso argi baina momentuz Espainiako Txapelketaren aurretik,



Jon Lopez.

mendikoak, beste bi Espainiako Kopakoak egiteko asmoa daukagu. Bata Valladoliden eta bestea Valentzian. Momentuz horreek daukadaz zehaztuta, baina oindino asko geratzen dira eta taldekideak egin behar dot berba, euren eretxia garrantzizkoa da-ta. Garagarrilean Espainiako Txapelketan hartuko dozu parte Euskal Selekzinoagaz? Selekzinoak badauka berezitasun bat-edo, eta da urte osoan egindako lanagaitik deitzean deusuela. Eurek esaten deusue aukera hori daukazun ala ez. Egia esan, nire aurtengo denporaldia ezin hobea izan da. Lesino bat izan neban denporaldi hasikeran baina Euskadiko Selekzinoan egoteko aukerea badaukadala esango neuke.

Zein izango litzateke zeure helburua Espainiako Txapelketan?

Egia da ikusten dan maila gero eta hobea dala eta lehen esandako moduan, lesino bat izan dot eta ez da erraza barriro be lehen-go mailara heldutea. Espainiako Txapelketan postu egoki bat egitea gustauko litxakit, lehenengo 15-20ren artean egotea pozik hartuko neuke.

Etorkizunera begira profesionala izan gurako zeunke?

Danon ametsa da profesionala izatea, baina gaur egun oso konplejua da hori. Esango neuke gustauko litxakidala. Berezia da, zaila be bai, sakrifizio handia eskatzen dau, denpora asko bizikleta gainean, baina polita dala esango neuke. Bere xarma dauka.



FEDMEko Kilometro Bertikaleko Txapelketan zidarra Onditz Iturberentzat eta Euskadiko Selekzinorako

Erredakzioa

Bagilaren 15ean jokatu zan Vi-lanuan (Huesca) FEDMEk anto-latutako Kilometro Bertikaleko Espainiako Txapelketea. Onditz Iturbe igorrezarrak bigarren egin eban Laia Montoyaren atzetik, eta Euskal Selekzinoak be, bigarren, Kataluniako selekzinoaren atzetik. Gizonezkoetan Fabian Venerok irabazi eban proba.

Andrazkoen podiuma Isabel Calerok osotu eban eta selek-zinoetakoa Andaluciak andraz-koen kategorian eta Kanarie-

takoak gizonezkoetan.

Europako Txapelketea
Italiako Aprica herrian jokatu-ko da Europako Kilometro Bertikala garagarilaren 3an. Probeak 4,5 kilometroko luzeerea eta 950 metroko igoerea daukatz. "Gara-garril hasieran hori egingo dot eta gero geldialditxo bat. Hortik aurrera mundialera begira laster-ketaren bat edo beste be egingo dot, baina oindino ez dakit zelan antolatuko nazen" azaldu deu-tso BEGITURI Onditz Iturbe mendi lasterkariak.



Onditz Iturbek bigarren egin eban.

Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazinoak
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 637 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Blatzen dega jabetza

- Salmentan zein alokairuan
- Lurrik (erakitzeko, landak, basak...)
- Etebiziak (jauak, baserak, etxeak...)
- Garaioak
- Lokal komertzialak
- Pabiloiak...
- Solentzioak

Bider dega proiektu

- Erakiri berriak erakitzeko
- Erformaak
- Antolatu-proiektuak
- Baina diseinua
- CEE eta ITE-ak
- Hirigintza aholkularitza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

Uhartedun Arana 23, Lemoa - Igore
Telefonoa: 94 631 31 87 - 428 78 15
E-mail: info@arratia.es
Web: www.arratia.es

Juridikoa - Fiskala - Landak - Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbelaide@gorbelaide.com

- **LAN PUBLIKOAK**
- **UR ETA SANEAMENTU SAREAK**
- **BASERRI ETA BASOKO BIDEAK**
- **PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK**

94 631 72 57

ekin@ekinsl.eus

Igorre (Bizkaia)

Onetiaio Harri lasterketarako

Gure ikastetxeak

Euskalduna kalidadezkoa herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 428 78 15 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

EMAKUMEA ETA LURRALDEA

Antzerkia eta kontzertuak bainuetxe ondoko landan

Areatza Udan izenpean, garagarriko kultur programazinoak, Santo Tomas jaiak, Folklore Bizian jaialdia eta Emakumea eta Lurraldea zikloa hartzean dauz.

Erredakzinoa

Ziklo honek, antzerkia eta kontzertuak eskaintzen ditu bainuetxe ondoko landan. Ekimenak, etxetik eroandako afariagaz, aire zabalean musikea eta antzerkiagaz disfrutetako aukerea emoten dau. Garagarrilaren 10 eta 17an, eguenetan izango da: 20:00etan, antzerkia eta 22:00etan, kontzertua.

Hilaren 10ean, La Pez konpainiaren *Plaza* antzezlanaren egongo da ikusgai eta Itziar Yaguek eskainiko dau kontzertua. Antzezlanak Leioako Umore Azokan 2024ko ikuskizun onenari saria jaso eban. Berba moduen fusino, publikoagazko hurrentasuna eta inprobisazinoa eskaintzen dau. "Nire amamak ezkutuan idatzi eta harriak altxatzen zituan. Gure amamen zauriak harrizkoak eta burdinazkoak dira. Eta oin neu urteten naz Plazara sendatzen saiatzera" esan eban Kar-mele Gisasola harrijasotzaileak. *Plaza* antzezlanean, "gizon batek kontrabajua jotzen dau eta andra batek pago enborrak moztu eta harri ikaragarriak altxatzen ditu".

Kontzertua barriz, hainbat estilotako musikea egiten dauan Itziar Yaguek eskainiko dau. Madrileko hainbat bandaren buru izan ostean, 2020an, doinu afroamerikarrez osotutako *Delicious* izan zan konpositore moduan ateratako bere lehenengo lana. Disko honengaitik Enlace Funk aldizkariaren abeslari onenari saria jaso eban. 2023an, bigarren diskoa atera eban *Girl Like Me* izenekoa, soul gehiago, country gehiago eta r&b gehiago daukana. Igaz Donostiako Jazzaldian egon zan eta aurten Bessi

Smith-en omenezko biniloa kale-ratu dau.

Ganso & Cia eta Maria Ruiz

Hurrengo egunean, hilak 17, Ganso & Cia-k *Welcome & Sorry* antzezlanaren eskainiko dau; kontzertua, Maria Ruizek. *Welcome & Sorry* kaleko antzerki ikuskizuna da, klasiko handien parodiak egiten ditu; Clown komedia, publiko guztientzat. "Teloia zabalduen da. *To be or not to be!*". Horraino dana ondo. Antzerki zale bik Hamlet antzeztuko dabe, jatorrizkoagazko leialtasun osoz. Dozena bat artista eta teknikariren lana egin behar izatea, Shakespearen hizkuntzan irudikatzea, talenturik eta trebetasunik ez izatea ez dira eragozpen izango. Edo bai? Williamek burua altxatuko baleu... agian ez litzateke harro egongo, baina behintzat barre egingo leuke" sinopsiaren arabera.

Maria Ruiz Alacanteko kantautoreak musikan daroazan hamar urteak ospatuteko, *10 años de canciones* izeneko bira dago egiten eta Areatzan egingo dau geldialdixoa. "Alkarregaz emondako denpora eta musika hori ospatuteko eta eskertzeko bira da. Hiru disko, ehunka kontzertu eta hamaika kantu izan doguz lagun urte honeetan eta gaur egun zorioneko sentiduen gara egindako bide guztiagaitik, ikasitakoagaitik eta hori posible egin dauan publiko politagaitik. 2025 honetan sorpresa pilo bat ekarriko dogu eta zelan ez! ospatuteko, eta 10 urte honeetan zoriontsu egin gaituen abesti guztiak barrero alkarregaz kantetako, alkar ikusiko dogu" dino artisteak bere webgunean.



Maria Ruiz.

FOLKLORE BIZIAN

Hilaren 19an izango da Areatzako Folklore Bizian jaialdia

Fiestas de Mexico talde folklorikoak eta Tajikistango Gaffar Valamzade Elkarte Folkloriko Nazionalak jantza emonaldia eskainiko dabe garagarrilaren 19an, 20:00etan, Areatzako frontoian. Aurretik, 19:45ean, Gudarien Plazan batuko dira danak eta kalejiran egingo dabe frontoirako bidea.

Erredakzinoa

Folklore Bizian jaialdia, Galdakaoko Andra Mari jantza taldeak, udalakaz batera antolatutena dau urtero hainbat herritan; Arratian, Areatzan. Jaialdian, Galdakaoko taldeak bere jantzak erakustez gainera, mundu zabaleko jantza taldeak ekarten ditu euren ondarea eta ohiturak jakitera emoteko. Aurten, Mexiko eta Tajikistanetik etorritako taldeak egongo dira Areatzan.

Fiestas de Mexico taldea

Mexikoko Estaduan dagoan Tultitláneko Fiestas de México Folklore Taldearen zuzendaria Juan Carlos Rodríguez Orozco da. Hamabost urtetan, konpainia honek 50 jaialdi nazional eta internazional garrantzitsutan parte hartu dau, eta hainbat go-raipamen eta aintzatespen jaso ditu Mexikoko folkloreaken zabal-kundean egindako lanagaitik.

Mariatxiek herrialdeko adierazpen musikalik ikonikoenetako bat ordezkatzeko dabe eta 12 kidez osotutako orkestra tradizio-nala egongo da kanta iraultzaile-netatik erromantikoenetara joz.

Mexiko, antxinako zibilizazioen lurraldea da, iparretik hegora tribu ugari zeharkatutena dabena. Tribuetako bakotxak bere lekua topau eta bere erras-tua itxi dau. Lehen biztanleen eraginak espainiarrakaz nahastu ziran, jatorri, erritmo eta talentu ugari herrialde bat osotuz.

Tajikistango Gaffar Valamzade taldea

Tajikistan Asiako bihotzean dago, munduko mendi altuen erdian. Kultura persiarrek eraginda, Tajikistanek bere independentzia lortu eban Sobietar Batasuna desagertu ondoren, oin dala hiru hamarkada. Herri hau, milaka urtez, islamiar kulturearen zaindari nagusia izan da, Mendebalde eta Ekialde artean kokatzen dan eremu honetan, baina euren arbasoek funtsezko rola izan eban budismoa, manikeismoa eta kristianismoa hedatzen eta eraldatzen. Hizkuntza ofizialak tajikoa

(persierearen aldaera bat) eta errusiara dira eta dialekto ugari dagoz. Tajikistango hego-mendebaldean, Pamir mendikateko tontor ikusgarriak, Himalayaren antzerako altueretara heltzean diranak dagoz.

Tradizino kultural horreei esker sortu zan 2001ean, Gaffar Valamzade jantza taldea. Ballet honek "urre ibaien herrialdean" bidaiatzea ahalbidetzen deusku. Herrialde horretako mitologia eta bardoen mundua be badakarz bere ikuskizunean Tajikistango taldeak.

Galdakaoko Andra Mari taldea

Folklore Bizian jaialdia antolatuten dauan Andra Mari taldea,

1955 urtean sortu eben Galdakaoko hainbat gaztek, euskal jantzen ondarea bildu eta gizarteratzeko. Hori dala-ta, sano erreperitorio zabala daukie: Altsasuko inauteriak, Luzaideko jantzak, Bizkaiko erromeria, Zuberoko eta Gipuzkoako jantzak eta Lizarrako Larrain jantzea, beste batzuen artean, eta urtero-urtero erreperitoria horren parte bat erakusten dabe Areatzan. Ikerketa eta dokumentazioan oinarritutako jantzak eta emonaldiak eskaintzen ditue. Taldearen historia luzean, atzerriko hainbat jaialditan hartu dabe parte; Belgika, Alemania, Erresuma Batuan edo Kanadan, berbarako.



Fiestas de Mexico taldea.



Gaffar Valamzade taldea.

ARTEA

Herri sarreran dagoan Begoñako Ama Birjinearen irudia barriztau dabe



Erredakzinoa

Ubideko sarreran, arbitrio-etxe ondoan egoan "Bizkaiko Zaindarien" azulejotako irudiak hamarkadak eriozian desegiten.

Ubideko Udalak irudia barriztatzeari ebatzi eban, eta Blanka Gomez de Segura Euskal Zeramika Museoko zuzendariak koordinatuta, unibersidade irakasle eta arte barriztatzailerik lantalde batek kon-

pondu dau irudia. Lantaldea, Idoia Madariaga EHuko irakasle doktoreak; Antonio Perla UNEDeko irakasle doktoreak; Carolina Peña Bardasano eta Carlota Perla arte errestitutatuak eta Ane Larrea ondare historikoaren gaineko tesi egiten dabilanak osatu dabe. Pablo Goikolea eta Joxan Pagola Ubideko herritarren laguntza be izan dabe proiektua aurrera ateratzeko. Inaugurazio ekitaldia, momentuz datarik izan ez arren, urri lehenengorako espero da. Han, zelan egin diran errestitutatuak lanak azalduko da, beste gauza batzuen artean. Bagilaren 28an, herritarrek topa egin eben barriztutako irudiaren aurrean.

Historia

Irudia 40 edo 50 hamarkadako da. 1972an, Aldundiko Obrak eta Zerbitzu sailak Bizkaiko mugetako Begoñako Ama irudien konponketa egiteko agindua eta erispideak emon ebazan. Agindu horretan, zein herritan egozan irudiok aitarazten zan; 22 herritan guztira. Gaur egun zazpi topau dira; tartean barriztau barri dan Ubidekoa.

LEHIAKETEA

Iraia Aspuru Respaldizak irabazi dau Arteako Jailetako Kartel Lehiaketean

Erredakzinoa

Bagilaren 20an, ebatzi eben Arteako Kultur Etxera hurrestitutako herritarrek zein izango zan Arteako jailetako kartela, lehiaketara aurkeztutako proposamenen artean. Lau kartelen artean Iraia Aspuru Respaldizarenak jaso ebazan boto gehien.



AISIA

Herrian jolasean, Zaztaparrak Asti Taldeko begiraleakaz

Erredakzinoa

Zaztaparrak Asti Taldeak eta Igorreko Udalak antolatutako Herrian jolasean ekimena, bagilaren 23an hasi zan, eta garagarriaren 24ra arte luzatuko da. Tarte horretan, astebarruan, izena emon daben umeak "herria esploratan, eskulanak eta jantzak" egiten dabiz; hau da, udan, aire zabalean herrian olgetan Zaztaparrak-eko begiraleakaz. Edadearen araberrako txanda bitan egiten dira jolasak. Haur Hezkuntzako 4. eta 5. mailako umeak Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoakaz egoten dira 17:30etik 18:45era arte. Bigarren txandan, Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailakoak dagoz, 18:45etik 20:00etara arte. Eskoletako aterpean batu eta herrian zeharreko ekintzei ekiten deuse. Parte hartzea, umeak berak ebazten dau "parte hartzea librea da eta umeak ebatzi ahal dau noz hurrelatu" dinoe Zaztaparrak-ekoek.

DUNBA

Arratia Institutua nazinoarterantz

Arratia Institutua

Ikasleen konpetentziak garatzen jarraitzen dau Institutuak Erasmus+ programearen bitartez. Ikasturte honetan hainbat esperientzia aberasgarri bizi izan dabez mugak zeharkatuta ikasleek. Alkartrukea, ikastetxeak behatzea eta esperientziak partekatzea izan dira ardatz nagusiak. Programa honek ikasleei aukera parebakoa eskaintzen deuse beste herrialde batzuetako kulturea, hizkuntza eta bizimoduak ezetuteko eta geure kulturea eta ohiturak atzerrian zabaltzeko. Urri bigarreanean, Ipar Euskal Herriarantz joan ziran ikasleak. Hain zuzen be, Urruzunon sarituak, bertsolariak eta Batxilergoko II. mailako literaturako ikasleak. Saran, Ikusi Mikusi Haur eta Gazte Literatura Azokan parte hartukeran Castillo Suarez idazlea ezetu eben. Ostean, Azkaine bisitau eben eta Uztaritzeko Mutxiko Egunean jantzan ibili ziran bertako herritarrekaz. Hilea amaitu orduko, institutuak bat egin eban



mundu osoan ospatzen dan Erasmus Days ekimenagaz. Ikasleak, familiak eta irakasleak hiru ekitalditan batu ziran alkarrieri kontetako oin arte bizi izandako Erasmus+ esperientziak. Batetik, igaz Alemanian egondako Ikasle Enbajadoreek han bizitakoak eta burututako lanen barri emon eutseen aurton Ekoliderrei —4. mailako 15 ikasle—. Bestetik, igazko familieek aurtongo anfitrioei euren esperientzia kontau eutseen. Azkenak irakasleak izan ziran. Atzerrian egindako ikastaroetan ikasitakoak zabaldu ebazan kideen artean. Neguan, Ekoliderak Alemanian egon ziran Ulm uriko Albert Einstein Gymnasium ikastetxea eta inguruak bisitetan. Lagun barriak egin eta esperientzia ahaztuezinak bizi izan ebazan. Alkartrukea prestatu ezezik, eTwinning bitartez hartuemonetan jarraitu dabe urtean zehar eta institutuko jasagarritasuna zaintzean be ibili dira Agenda 2030 proiektuagaz eta Alboan erakundegaz alkarlanean. Sakeleko telefono zaharrak batzeako kanpaina bideratu eta udabarriko azoka solidarioan *standa* ipini dabe. Alkartrukea osotuteko, alemaniar ikasleak ikastetxean hartu dabez udabarrian. Irakasleei jagokienez, lauk Estoniako eta Portugaleko ikastetxeak



bisitau dabez. Burua bete idea, estrategia eta metodologia bueltatu dira. Beste hamarrek be eTwinning eta Erasmus ikastaroak egin dabez. Berritzegune Nagusiak irakasleON praktika onak erakusteko konbitea egin eutsen eta Leioako Campusean erakutsi eben. Eskerrak emon gura deuseez bidelagun izan dabezan erakunde eta pertsona guztiei: Bihotz Lekua, Angel Larrea, sukaldariak, zaintzaileak eta gainontzeko langileak, Igorreko Udal, Alboan eta HikHasi erakundeak, Berritzegunea eta unibersidadea. Etorkizunari begira, institutuak nazinoarterkotzea sustatzen jarraituko dau. Ikasleei mundu zabalagoa erakusteko eta kulturarteko gaitasunak garatzeko aukerak eskaintzeko, XXI. mendeko herritarrek hezteko balioak sustatuta: tolerantzia, errespetua eta alkarlana.

AGENDEA

GARAGARRILAK 1
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Garagarrilaren 14ra arte, jaietako Kartel Lehiaketarako lanak aurkezteko epea udaletxean.

Urri lehenengoaren 25era arte, Areatzako Mendi Martxan izena emoteko epea zabalik www.rockthesport.com/evento/areatzako-mendi-martxa-2025 helbidean.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Urri lehenengoaren 25era arte, bialdu daitezke argazkiak [beginuren](mailto:beginuren@udako.org) Udako Argazki Lehiaketarako beginu@beginu.eus helbidera.

BEDIA

Liburutegiaren udako ordutegia: astelehenetik barikura 10:00etatik 14:00etara, hilaren 24ra arte.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik 09:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 20:45era. Arreteak: astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

HAPO erakusketea eta herritarren buzoia urri lehenengoaren 30era arte.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Hilaren 11ra arte, hilaren 30ean izango dan kuadrillen afarirako txartelak erosi daitezke udaletxean. Kuadrillen afaria 18 urtetik beherakoentzat da.

Hilaren 11ra arte, abuztuaren 2an izango dan herri bazkarirako txartelak erosi daitezke udaletxean.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

Hilaren 4ra arte, jaietako Kartel Lehiaketarako lanak aurkezteko epea harrera@zeanuri.eus-en. Kategoria bi: 18 urte arte eta 18 urtetik aurrera.

Hilaren 13ra arte, Ipiñaburuko jaietako hilaren 19ko auzo bazkarirako izen-emotea 605 591 101 telefonoan.

Hilaren 19ra arte, Ipiñaburuko jaietako hilaren 24ko auzotarren Tortilla Txapelketarako izen-emotea 605 591 101 telefonoan.

ZEBERIO

Liburutegia zabalik. Astelehen, eguen eta barikuetan 16:30etik 19:30era, martitzenetan 16:30etik 18:00etara eta eguaztenetan 17:00etatik 20:00etara.

Abuztuaren 1era arte, Bardintasun Planaren III. Diagnostikorako

Inkesta bete daiteke <https://forms.gle/aHL4UAq8eVagnwX8> estekan.

Hilaren 18ra arte, jaietako Kartel Lehiaketetarako lanak aurkezteko epea. Lehiaketa bi dira: Kartel Lehiaketea eta Umeen Kartel Lehiaketea. Informazino gehiago eta oinarriak udaletxean eta zeberio.net helbidean.

GARAGARRILAK 2
AREATZA

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra udaletxean.

17:30ean, Uparan Areatzako Jubilatu eta Pentsiodunen Elkarateak antolatutako berbaldia, *Sare sozialak eta aplikazioak (APPak)*.

ZEANURI


19:30ean, Andra Mari jaien inguruko batzarra Pleno Aretoan.

GARAGARRILAK 3
AREATZA

Santo Tomas jaiak Ospitalosten. 12:00etan, mezea; 20:00etan, parrilladea.

ARTEA

14:00etan, kontzentrazinoa mediku-etxe aurrean Osasungintzan murrizketarik ez! lelopean.



GARAGARRILAK 5
IGORRE

12:00etatik 20:00etara, Egarri Bako Egune San Kristobalen.

GARAGARRILAK 9
LEMOA

Ganzabal Mendi taldeak antolatutako hilaren 25etik 27ra Pirinioetarako urtekerarako izen-emotea Ganzabaleko lokalean.

GARAGARRILAK 10
AREATZA

20:00etan, La Pez konpainiaren *Plaza* antzezlan; 22:00etan, Itziar Yague swing, jazz eta blues abeslariaren kontzertua. Bainuetxe ondoko landan. Emakumea eta Lurraldea zikloa.



IGORRE

Jaiak San Kristobalen. 12:00etan, mezea; ostean, barauskarria eta herriko trikitilariak.

ZEANURI

18:00etatik 20:00etara, jaietako Kartel Lehiaketako kartelak ikusgai udaletxeko pleno aretoan, jenteak botoa emon dagian kartel irabazlea aukeratzeko.

GARAGARRILAK 11
LEMOA

20:00etan, *Trocos Lucos* zirku garaikidea Kulturguneko plazan.

GARAGARRILAK 12
ARTEA

Ate irekiak Basoa Defendatzaileen



Andoni Ollokiegik kontzertua eskainiko dau Lemoan

Lemoan jaietako txupina botateko bezperan, garagarrilaren 29an, Andoni Ollokiegik kontzertua eskainiko dau txosnagunean. 21:30ean, herri afaria egongo da eta afalostean joko dau kantuen bersinoak egi-teagaitik ezaguna dan musikariak.

Andoni Ollokiegik (Pasai Donibane, 1992), urteak daroaz gitarrea eskuetan jaiegunak eta gauak girotuten. 2023an, bakarlari moduan bere lehen diskoa, *Bekataria* kaleratu eban; ostean, 2024an, taldeagaz, *Alienatua* izenekoa.

Etxean. Poesia, magia, musikea, erakusketea, bazkaria eta lekukotasunak.

BEDIA

Hilaren 18ra arte, Uda Gaztea bidaia.

IGORRE

Jaiak San Kristobalen. 10:00etan, Aramotz oinez ezetu; 12:00etan, Paella Lehiaketarako izen-emotea; 13:00etan, Igel Txapelketea; 14:30ean, paellen aurkezpena; 16:00etan, Goitibehera Lehiaketea; 18:00etan, Tortilla Lehiaketarako izen-emotea; kale antzerkia; 20:30ean, tortillen aurkezpena; 22:00etan, Arantzarte jantza taldearen emonaldia; 23:30ean, erromeria Akerbeltz taldeagaz; ostean, DJ Jonkas.

LEMOA

18:00etan, III. Artzai Txakurren Bizkaiko Txapelketea futbol zelaiaaren ondoan.

GARAGARRILAK 14
BEDIA

Hilaren 24ra arte, Lodotekea Ludosport.

GARAGARRILAK 16
UBIDE

09:30ean, Goikogana Jubilatuen Elkaratearen urtekerea Artziniegara. 11:00etan, Museo Etnografikora bisita; 14:30ean, bazkaria Amurrioko Abiaga jatetxean; 17:00etan, buelte Ubidera. Izena Herriko Tabernan, Batzokian edo whatsapp bidez egin behar da. Izena emoteko atzen eguna hilaren 13a.

LEMOA

Ganzabal Mendi taldeak antolatutako hilaren 25etik 27ra Pirinioetarako urtekerarako izen-emotea lokalean.

GARAGARRILAK 17
AREATZA

20:00etan, Ganso & Cia-ren *Welcome and Sorry* antzezlan; 22:00etan, Maria Ruizen kontzertua. Bainuetxe ondoko landan. Emakumea eta Lurraldea zikloa.

GARAGARRILAK 19
AREATZA

Folklore Bizian. 19:45ean, plazatik frontoira kalejiran, Galdakaoko Andra Mari Eusko Dantzari Taldea; Fiestas de Mexico talde folklorikoa eta Tajikistango Gaffar Walamzade Elkarre Folkloriko nazionala; 20:00etan, Folklore Bizian. Frontoian.

ZEANURI

Ipiñaburuko jaiak. 12:00etan, jaien hasikerako txupina; 14:00etan, auzo bazkaria; bazkalostean animazinoa; 19:00etan, Bola Txapelketea, Kofradi en Bola Txapelketarako puntuagarria; 20:00etan, txokolatea.

GARAGARRILAK 20
ARTEA

Santa Marina jaiak. Goizean, mezea, barauskarria eta Paella Lehiaketea. Arrastian Mus eta Briska Txapelketak Santamañen.

GARAGARRILAK 22
UBIDE

Madalena jaiak. 12:00etan, umeentzako jokoak; 14:30ean, Tortilla Txapelketako tortillen aurkezpena; 15:30ean, bazkaria bolalekuan (bakotxak berea); 16:30ean, bingo musikatua; 18:00etan, Makillaje Lehiaketea; 18:30ean, kontzertua: Pancho Balbuena; 20:00etan, sardinak eta txokolatea; 21:00etan, erromeria Eingo taldeagaz.

begitu 453
2025eko garagarrilaren 1a

GARAGARRILAK 24
ZEANURI

Ipiñaburuko jaiak. 19:00etan, auzotarren arteko Tortilla Txapelketea; ostean, partaideen arteko afaria.

GARAGARRILAK 25
ARTEA

Mezea Santiago ermitan eta barauskarria; ostean Marmitako Txapelketea ermita inguruan.

LEMOA

Hilaren 27ra arte, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Pirinioetara urtekerea. Musales (2.653 m), Gran Faixa (3.005 m) eta Frondiella (3.060 m).

ZEANURI

Ipiñaburuko jaiak. 12:00etan mezea; ostean barauskarria herriko txistulariakaz; 17:00etan, Mus eta Briska Txapelketak, umeentzako jolasak eta Montse artisauaren eskutik ardi-ulea pintetea; 18:00etan, Walas magoaren *Gertutik ikusteko magia* ikuskizuna; 19:30ean, artzai txakurren erakustaldia; 21:00etan, trikitilariak girotuta, urdaia danontzat; bitartean zozketea egingo da.

GARAGARRILAK 26
ZEANURI

Ipiñaburuko jaiak. 12:00etan, Arimen mezea; ondoren, barauskarria.

GARAGARRILAK 30
LEMOA

17:00etatik 18:00etara, hurrengo eguneko Mozorro Lehiaketan parte hartzeako izen-emotea txosnagunean. Gaia: gertakari historikoak; 17:00etatik 18:00etara, abuztuaren 1ean izango dan Playback Lehiaketarako eta abuztuaren 2an egingo dan Rally Umoristikorako izen-emotea txosnagunean; 21:30ean, herri afaria txosnagunean; ostean, Andoni Ollokiegiren kontzertua txosnagunean.

GARAGARRILAK 31
AREATZA

07:00retatik 19:00etara, autobusak Pagomakurrera igon eta bajatuteko.

LEMOA

Lemoako jaiak. 18:30ean, jaietako kartelen erakusketea udaletxeko plazan; 19:00etan, jai hasikerako txupina; kalejirea erraldoi eta gaiteroakaz Elizondoraino; Mozorro Lehiaketako sari banaketea; 21:00etan, kuadrillen afaria Kulturguneko plazan; 22:00etan, Ameztu Antzerkiaren *DJ Kaktus, bihurriak gara* ikuskizuna Kulturguneko plazan; 23:00etan, kontzertuak eta erromeria txosnagunean: Bunkker, Tatxers eta Mugi Panderoa.

ABUZTUAK 1
LEMOA

12:00etan, Bote Luzea erakustaldia Lemoako Esku Pilota Taldearen eskutik, Elizondon; 18:00etan, *Zirkoteka*, Zirkozaurren umeentzako zirku tailerrak, Kulturguneko plazan; 19:30ean, Sama Siku fanfarrea Elizondotik; 22:00etan, Playback Lehiaketea txosnagunean; 23:30ean, kontzertuak eta erromeria txosnagunean: Zeinke, La Txama, Altxa Porru.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK BULEGOA SALDU EDO ALOKATZEN DA

Arrigorriagako erdigunean 43 metro karratuko lokala. Guztiz instalatuta eta altzariz horniduta. Interesdunek deitu 665 709 651 telefonora.

LOGELA BILA

Lan eta ikasi modalidadean dabilen ikasle bat logela bila dabil Igorre edo inguruetan. Gixtinez urte birako beharko leuke logela. Interesdunek deitu 613 075 822 telefonora.

SALTZEAN DODAZ

Lowe pro argazkilaritza motila gorria, neurriak: 26x34x11, prezioa: 35 euro. Umeentzako tipi ohea. 90x190 cm neurrikoa, 90 cm-ko zabalerako koltxoirako. Somierra zoru gainean. Kolorea: egurra eta zuria eta prezioa: 90 euro. Interesdunek deitu 661 273 192 telefonora.

EMOTEN DOT

56 m³ lur eta obra-hondakin eskaintzen da betegarria egiteko doban, eroatea barne. Interesdunek 607 482 499 telefonora deitu.

GELA BEHAR DOT ALOKAIRUAN

Pisu konpartidu baten, persona bakar

batentzako gela bat behar dot alokairuan. Telefonoa: 642 912 390.

MAHAIA OPARITZEN DOT

Eskola adineko umeentzako mahai aproposa oparitzen dot. Kontatuko telefonoa 630 363 971.

DORDOKEA TOPAU DOGU

Dordoka bat topau dogu Igorren, San Juan auzoan. Zurea bada, 611 617 137 zenbakira deitu.

LANA

BEHARGINA BEHAR DOGU

Interna moduan lan egiteko persona bat behar dogu, Soziosanitario tituluduna. Interesdunek deitu 685 704 440 edo 635 207 386 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Areatzako Udalak emondako *Dolu bat eta dolu bi* liburuaren ale bana.

2 Areatza Musik and Brewing Musika eta Kultura Elkarateak ateratako materiala.

Txaro Tornero (Dima)
Rafa Ugalde (Dima)

Esti Izagirre (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 23 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARO

NAIARA HORTZ KLINIKA
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

BIZARGINAK
BIZARGINTZA-ILEAPAINDEGIA
94 607 78 33
LEHENDAKARI AGIRRE 9, IGORRE

Ipini zure iragarkia Begitun 649 979 115 inigoirua@begitu.eus

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tel. 94 631 92 00

GORBEIALDE
LANDA GARAPENA
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO GARAPENEAN LAGUNTZEN

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel.: 94-673-70-87
Tel.: 609-79-40-54

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

Dia %
PEDRO AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

begitu
.eus

Kili~Kili
Ampa eta Puztifikatza
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 63 81



EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN ETA SARI POTOLO HONEEK IRABAZI!

Begitu-lagun egin ezkeror, edo Begitu-laguna izan eta barri bat ekarten badozu (biak sartzean dira zozketan) garagarriaren 28ra arte bi sari honeen zozketan parte hartuko dozu:

SARIAK

A

ENEKO

Eneko Atxaren Larrabetzuko ENEKO jatetxean SUTAN menua maridajeagaz lagun birentzako.



Ondino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 40€ ☐ 60€ ☐ 80€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

HOTEL ORDUÑA PLAZA



B

HOTEL BALNEARIO ORDUÑA PLAZAN

astegoien pasa: gau bi, zirkuিতua, gosaria eta masajea lagun birentzako.

